

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AGURAINGO UDALA

#### Kontratazio mahaiko kideak izendatzea

Alkateak, 2022ko uztailaren 11ko dekretu bidez, Alkatetzaren eskumen diren kontratueterako kontratazio mahai iraunkorraren eraketa aldatzea ebatzi du. Hona hemen ebazpenaren testua:

Hau ikusirik: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE zuzentarauak bertako araubidera dakartzan Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak bigarren xedapen gehigarriaren 7. apartatuan eta 326. artikuluan xedatutakoa, toki erakundeetako kontratazio mahaien eraketari dagokionez.

Hau ikusirik: Administrazio publikoetako kontratazio organoek kontratazio mahai baten laguntza izan behar dutela.

Ebazten dut

1. Alkatetzaren eskumen diren kontratueterako kontratazio mahai iraunkorraren eraketa aldatzea, indarrean dagoenaren ordez honako hau ezarriz:

Epaimahaiburua: Pastor Martín Jiménez, kontratazio teknikaria.

Ordezkoa: Marta Ramírez, Arabako Lautadako Kuadrillako legelari aholkularia.

Epaimahaikideak: María Francisca Irigoien Ostiza, Aguraingo Udaleko idazkari-kontuhartzailea; Marta Ramírez, Arabako Lautadako Kuadrillako legelari aholkularia, eta Estibalitz Iturrospe López de Heredia, administraria.

Idazkaria: Olga Sanz Corera, administraria.

Ordezkoa: Estibalitz Iturrospe López de Heredia, administraria.

2. Izendapena interesdunei jakinaraztea, eta ALHAOn eta kontratatzailearen profilean argitaratzea.

Agurain, 2022ko uztailaren 12a

*Alkatea*

*ERNESTO SAINZ LANCHARES*